

Hizkuntza Politikaren Plan Estrategikoa (2016-2019)

Partaidetza Prozesua

Bilera-mota	Sektore-bilera: SOZIOEKONOMIA
Eguna	2016-11-09
Ordua	17:00-19:00
Lekua	Iruñea, NAPI egoitzan

Bertaratutakoak	
Patxi Saenz Lazkano (Nafarroako Gobernua – Turismo Zerbitzua)	Naiara Mondragon Rubio (Fagor Ederlan Tafalla)
Pilartxo Sorbet Amostegi (Laboral Kutxa)	Olatz Irizar Martinez (Emun)
Ander Etxeberria Otadui (Mondragon)	Jon Zuazabeitia Olabe (Emun)
Virginia Aleman Arrastio (Geroa Baiko Parlamentaria)	Ricardo Goñi Leranoz (Rural Kutxa)

Euskarabidetik: Mikel Arregi

Elhuyarretik: Jon Abril

Gai zerrenda

- Ongietorria
- Plan Estrategikoaren hasierako idatzaldia aurkeztea
- Sektorekako lanketa: elkar ezagutzea eta talde-lana
- Balorazioa eta agurra

Bileran egindakoa

Euskarabideko Zuzendari Mikel Arregik egin die ongietorria hurbildutako eragile guztiei eta Plan Estrategikoaren prozesuaren nondik norakoak eta Planaren markoa azaldu ditu lehenbizi, eta ondoren, Elhuyarreko teknikaria den Jon Abrili eman dio hitza, planaren helburuak aurkezteko. Aurkezpena egin bitartean, parte-hartzaileek lanketa-fitxa izan dute eskuartean oharrak jasotzeko. Lanketa-fitxak honakoa jasotzen zuen: *Erantsiko nuke.../ Zalantza eragiten dit.*

Ondoren, elkar ezagutzeko izen-erronda egin dugu. Jarraian, sozioekonomiaren alorrarekin erlazionatzen

diren helburuen dokumentua banatu dugu (6 helburu jasotzen dituen) eta talde txikian honako galderen gainean jardun dugu lanean:

- Zerbait erantsiko zenuke? Zerbait faltan botatzen duzue?
- Zerbaitek zalantza eragin dizue?

	SOZIOEKONOMIA
1.6.	Merkataritzan, zerbitzu profesionaletan eta enpresetan euskararen erabilera hedatzen duten ekimenak garatzea, norbanakoei euskaraz lan egitea errazten dietenak, euskara komunikazioetan sartzen dutenak, euskarazko eskaintza ikusgarri egiten dutenak eta euskara hizkuntza paisaia ohiko egiten dutenak.
4.1.	Euskararen irudia eta prestigioa hobeki kokatzea, euskarak Nafarroaren balio positiboekin eta etorkizuneko balioekin duen lotura azkartuz.
5.1.	Euskara Nafarroaren ekonomiaren eragile bilakatuko duten ekimenak garatzeko oinarriak ezartzea, euskarak ondare materiagabetzat duen balio paregabea eta mintzairatako dituen ezaugarriak (komunikatzeko, informatzeko eta ezagutza zabaltzeko bidea, arte hizkuntza...) Nafarroako sektore ekoizle, teknologiko eta berritzaileei lotuz.
5.2.	Euskara produktu nagusia duten turismo estrategiak garatu eta abian jartzea, turisten bisita kopurua eta aldiko Nafarroan igarotzen dituzten gau zenbatekoaren batez bestekoa handitzea ekarriko duten ekimenak euskararen inguruan sortzeko.
5.3.	Euskara balio erantsiko elementua den arlo ekonomikoetan negozio aukerak sustatzea, Nafarroarako irabaziak eta garapen ekonomikoa ekarriko dituztenak.
5.4.	Diru-sarrera gehigarriak sortzeko bideak jorratzea, Nafarroan euskarak duen kokapena hobetzeari eraginen diotenak eta EUSKARABIDEAK itzulkin ekonomikoak sorrarazteko gaitasuna piztuko dutenak.

Ondoren, talde handian konpartitu dugu talde txikietan hausnartutakoa.

Saioa bukatzeko, balorazioa egin dugu eta hurrengo urratsak zein izango diren gogoratu ditugu.

Bileran jasotako iritziak eta ekarpenak

Erantsitakoak edo azpimarratzekoak diren alderdiak:

- Hamabost enpresa aukeratu (merkataritza-guneak, industria, entitate finantzarioak...) motor-lana egiteko.
- Posizionamendua. Nafarroak bere hizkuntza bultzatzen eta bermatzen duen komunitate gisa aurkeztu hizkuntza gutxiagotuen sarean, EAE eta Ipar Euskal Herriarekin batera. Etorkizuneko balio positiboa. Hizkuntza gutxiagotuen defentsan aitzindari izan.
- Estrategia turistikoa. Nafarroako diaspora.
- Euskaraz nabarmentzen den enpresa edo merkataritzari sari bat eman urtero.
- Proposamen praktikoak azaldu helburu bakoitzean.
- 1.6. puntuan, euskara sustatzeak ez du kosturik eduki behar merkatarientzat edo

enpresarentzat. Eta kostua izan behar badu, itzulera komertziala eduki behar du. Beste aukera litzateke ikusaraztea eskaintza euskaraz ez duenak errealitatetik kanpo jokatzen duela.

- 1.6. puntuan, arnaguneetan ekonomia indartzeko tresna bezala euskara landu.
- 1.6. puntuan, euskara normaltasunez erabiltzen hasteko urratsak eman (itzulpen lanak, errotulazioa egiteko laguntzak...).
- 1.6. puntuan, ikasleek enpresa-praktikak euskaraz egin ditzaten neurriak hartu (sariak).
- 4.1. puntuan: Kanpaina bat sortu eragile ekonomikoen eta kontsumitzaileen artean.
- 4.1. puntuan, eremu sozioekonomiko eta politiko guztietako (enpresak, politikariak) pertsonen esperientziak normaltasunez agertzeko bideoak, sareak, topaketak...
- 4.1. puntuan, enpresek publizitatea euskaraz egin dezaten mekanismoak abian jarri (aliantzak, sariak...).
- 4.1. puntuan, euskara plana duten enpresen errekonozimendu publikoa landu eta garatu.
- 5.1. puntuan, enpresei abantaila ekonomikoak proposatu euskaraz lan egin ahal izateko (pizgarriak, zerga-kenkariak...).
- 5.1. puntuan, enpresetan erabilera handitzen duten egitasmoak saritzea (enpresa planak, edota bestelako diru-laguntza deialdietan euskararen garapen-plana dutenak positiboki diskriminatzea).
- 5.2. puntuan, Turismoaren Plan Estrategikoan txertatu Euskara Planaren ardatzak.
- 5.2. puntuan, euskararen ibilbide antzeko zer bait sortu.
- 5.2. puntuan, Nafarroa euskararen jaioterri gisa promozionatu.
- 5.2. eta 5.4. puntuetan euskaraz aritzen diren enpresak turismo zerbitzuak eskaintzeko abantailak eman (diru-laguntzak, promozioa, bidaiak kazetariekin...).
- Enpresa handiei eta diru asko dutenei (multinazionaliei) derrigortasun batzuk ezarri.
- Euskarazko produktuak ezagutzeko marka.
- Sare sozialak euskaraz.
- Beste lurralde batzuetako praktika onak ezagutu (EAE, Katalunia, Galizia, Italia, beste herrialde batzuk...). Egin dena eta funtzionatu duena ezagutzera eman.
- EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriaren arteko protokoloa.
- Errigorako adibidea hartu: euskararen balio erantsia salmentak igotzeko.
- Eraikin, denda handiak eta abarretan, lizentzia eskatzen dutenean kartelak eta iruditeria ele bitan agertzea arautu eta laguntzak eskaini.
- Unibertsitatean euskaraz ikasteko aukera % 100 bermatu.

Bileran jasotako iritziak eta ekarpenak

Zalantza eragiten duten alderdiak:

- Euskara Nafarroako ekonomiaren eragile izatea ez dut posible ikusten.
- Euskararen Legeak sortu dituen trabak nola gaindituko ditugu?
- Zein mediorekin finantzatuko da hau dena?
- 5.2. puntuak: euskara bitrina batean ikusgarri egongo den bitxia izango da?

Bileraren balorazioa

Bakoitzak hitz batez baloratu du saioa eta saioan landutakoa:

- Osasuna
- Zaila
- Esperantza
- Emankorra
- Harridura
- Dirurik ez

Eta saioaren balorazioa orokorra egiteko, balorazio-orria bete dute. Hona emaitza:

BILERAREN BALORAZIO-ORRIA (Sektore-bilera: SOZIOEKONOMIA)

BALORAZIOA				
BILERAREN ORDUTEGIA ETA IRAUPENA EGOKIAK IZAN DIRA			1	5
GAIK LANTZEKO MODUA GUSTATU ZAIT			3	3
BILERAREKIKO ESPEKTATIBAK BETE DIRA		1	3	2
BILERA AURRETIK JASOTAKO INFORMAZIO NAHIKOA IZAN DA		2	3	1
GIROA ATSEGINA IZAN DA				6
PLAN ESTRATEGIKORAKO EKARPEN INTERESGARRIAK EGIN DIRA		1		5
GAUZA BERRIAK IKASI DITUT	1	1	1	3
BILERAN PARTE-HARTZEAK AURRERA BEGIRAKO URRATSETARAKO MOTIBATU EGIN NAU		1	2	3
HARREMAN ETA SARE BERRIAK ERAIKI DIRA			4	2
BILERAN PARTE HARTZEAK ASETU NAU	1		2	3

EGIN NAHI DITUZUN OHARRAK